



Arte eta Lanbide Eskolak Liburutegia noiz irekiko duen jakinarazi du

100 urteko historia duen liburutegi honek 8.000 ale baino gehiago gordetzen ditu. Gaur hasiko da iragarrita zegoen irekitze-programa

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a

Arte eta Lanbide Eskolako aretorik enblematiko eta maiteenetako bat da Liburutegia. Azken bost urteetan itxita egon da, katalogazio sakona egiteko: 8.000 ale baino gehiago identifikatu, sailkatu eta ordenatu dira. Orain, bere funts baliotsu eta askotarikoa erakusteko unea iritsi da.

Horretarako, Eskolaren 250. urteurrena ospatzen den ikasturte honetan, liburutegia irekita egongo da hileko azken astean (asteazken eta ostiraletan arratsaldez, eta ostegunetan goizez). Edukiera mugatua duenez, izena eman beharko da. Informazio guztia Eskolaren webgunean (<https://www.escueladeartes.org/eu/>) edo ikastetxean bertan egongo da eskuragarri.

Irekitze-datak:

- Azaroa: 27 eta 29 (19:00etatik 20:00etara) eta 28 (11:00etatik 12:00etara)
- Abendua: 18 eta 20 (19:00etatik 20:00etara) eta 19 (11:00etatik 12:00etara)
- Urtarrila: 29 eta 31 (19:00etatik 20:00etara) eta 30 (11:00etatik 12:00etara)
- Otsaila: 26 eta 28 (19:00etatik 20:00etara) eta 27 (11:00etatik 12:00etara)
- Martxoa: 26 eta 28 (19:00etatik 20:00etara) eta 27 (11:00etatik 12:00etara)
- Apirila: 9 eta 11 (19:00etatik 20:00etara) eta 10 (11:00etatik 12:00etara)
- Maiatza: 28 eta 30 (19:00etatik 20:00etara) eta 29 (11:00etatik 12:00etara)
- Ekaina: 18 (19:00etatik 20:00etara) eta 19 (11:00etatik 12:00etara)